

ZUZTARRETATIK OINEZ: ARRIGORRIAGA

2015-11-27

Ibilbideak aproposak ohi dira herri bat, auzo bat edo herrigune bat ezagutzeko.

Hemen Arguiari aurkezten dogun lehenengoa da gaur hemen ikusiko dozuena. Arterago Galdakaon, Basaurin edo Orozkon erakutsi ditugun moduan, gaur, Nerbioialdea deritxogun ibar honetan, Bilboren ateetan dagoan udalerrri honetan, etxe giroan, familia barruan euskera ikasteko ohitura egon dan lurraldearen muga-mugan ia.

Ia dinot, ze San Migel Basaurikoan, Buian edo Bilbo ganeko Pasagarri barrenetan be euskereak, ber-bertakoak, gaur egunera arte iraun dau tradizionoko euskerea deitzen dogun horrek.

Iraun, iraun dau, baina ez bizitasunez, ez indarrez, ez oparo; mehe eta argal baino, hizkuntza endekatu baten eran. Baina guztiz galdu barik, halanda be. Arrigorriagari *Arguia* esaten badeutso bertokoa edo Zaratamokoa dan jente euskaldunak, horixe beste barik, herri euskaldun lez iraun dauen eta bizi dan seinale da.

Gure erronka nagusia, orain artean bizirik iraun dauen euskera horri irauten eta sendotzen laguntzea da; lehen dakienen eta belaunaldi gazteen arteko lokarria sendotzea, katea ez dala eten bermatzea, kate horri hausten ez ixtea.

Horretarako guztion ahaleginak beharko dira: familia barruan, lagunartean, eskolan, aisialdiko ekintzetan euskera egiteari hauspoa emotea. Eta halan da guzti be, ahaleginok guztiok labur geratuko dira; dana beharrean gagoz eta. Herritar guztiok zagoze inplikatuak beharleku horretan. Gogoia eta borondatea behar dira horretarako.

Horretara dator, besteak beste, gaur aurkezten dogun *Sustarretatik Oinez. Arrigorriaga* bideo hau. Euskeraz bizi izanak, errekarriak lez euskerea, biribil-biribil egin arte erabili izanak aldatu ditu hainbat leku-izen Arrigorriagan be. Goikuri *Goikiri* bihurtu da, Jandoneperi *Yaranpi*, Urizaharrarte *Uxarte* eta holan beste asko.

Euskereak eta euskeraz lekuei emon jakezan izenak be, ibili-ibili, aldatzen joan dira. Halan *San Pedro iturriagaz* batera, *Jandone Peri* zaharra daukagu, Bizkaiko ermitarik zaharrenari jagokon izena, gaur Bilbo dan Deustuko eleizeari, orain San Pedro deritxonari, lehenago-lehenago eritxon moduan: *Jandone Peri*.

Ermita inguruko lurrai *ortusantua* esaten ei jake. Izen zahar zoragarria hori be, gaur orioa lez zabaltzen doazen *hilerri* edo *kanposantuen* ondoan.

Larrasko be zer ete da *larratxoa*, *larra txikia* baino, *oilaskoa* oilar gaztea edo *idiskoa* idi gaztea dan legetxe?

Arrigorriagako semea genduan Bizkaiak euskereari emon deutsan klasiko handienetariko bat, XIX. mendean bizi izan zan Jose Antonio Uriarte (1812-1869), Luis Luziano Bonaparte dialektologia-maisuaren laguntzaile handienetarikoa, Biblia osoa euskerara bihurtu ebana; bere aldira arteko Bizkaiko poesia-bertsogintzaren bildumarik ederrenaren egilea, Bizkaiko Batzar Nagusien itzultzaile bikaina, erlijino-liburutxoen idazle bardinbakoa, bertso- eta poesiagile bikaina, euskera zuzen, aberats eta eredugarriaren maisua... Belaunaldi bat edo bi atzerago agertuko zan Azkue handiaren aurretiko iragarlea. Arrigorriagako semea.

Gure lehenaren lekukotasunok dakardaz gogora, bideo honen aurkezpenean, gogoan izan daigun, gure euskal hizkuntza, herri-izaera eta herri-ondare aberats baten zama eta altxorra daukagula atzean, orainera eta etorkizunera proiektatu beharrekoa. Baserri giroko herri zahar euskalduna, trenbide, autobide eta errepideek zeharkatu ahala, industria-herri eta urbano bihurtu dabena, zaharbarritzen joan dadin gura dogu, baina lehenari uko egin barik, baserri-kaleak sinbiosi emankor bihurturik.

Eskerrak BFA, Arrigorriagako Udala, eta Labayru Fundazioagaz batera bidelagun izan zarien guztioi. Geroan be halan izan dadila.

Adolfo Arejita

2015-11-27